

Informazioa zabaltzen

Sexu jazarpenari eta generoan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa

...Ezagutzen...

Ane Urdangarin Iriarte

Sexu jazarpena eta generoan oinarritutako jazarpena



XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean, gizon-emakume ugari ari gara lanean, arlo desberdin askotan: administrazioa, kudeaketa, laguntza teknikoa, jendearentzako arreta, programen koordinazioa... Guztiok eremu instituzional berean jarduten dugu, eta helburu bat bera daukagu: kalitatezkoa, inklusiboa eta errespetuzkoa den euskal hezkuntza-sistema eskaintzea. Helburu hori lortzeko, ez da nahikoa nork bere lana ondo egitea. Funtsezkoa da lan hori indarkeriarik, diskriminaziorik eta abusurik gabeko ingurune batean egingo dela bermatzea.

Pertsonen duintasuna eta ongizatea modurik zuzenenean kaltetzen dituzten jokabideen artean, sexu-jazarpena eta generoan oinarritutako jazarpena daude. Ez dira huskeriak, ez eta «arazo pertsonalak» ere, baizik eta edozein lan-ingurunetan gerta daitezkeen errealitateak, Administrazioak prebenitu eta desagerrarazi behar dituenak. Horregatik, EAEko araudi berrienaren esparruan, jarduketa-protokolo bat daukagu, mota horretako egoera ororen aurrean erantzun egokia, azkarra eta errespetuzkoa bermatzeko diseinatua.

Euskadin, esparru juridikoak aurrerapauso nabarmenak egin ditu arlo horretan. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak espresuki aitortzen du sexu-jazarpena eta generoan oinarritutako jazarpena zuzeneko diskriminazio-moduak eta oinarritzko eskubideen urraketa larriak direla. Bestalde, 2021eko uztailaren 9ko Aginduak – urte horretako irailaren 1ean argitaratu zen EHAAn– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan sexu-jazarpenaren kasuetan eta generoan oinarritutako jazarpenaren kasuetan jarduteko prozedura arautzen du.

Ondoren, 2023ko abenduaren 1eko Aginduak eguneratu egin zuen kasu horietan esku hartzen duten ikerketa-batzordeen erregulazioa, bermeak eta prozesuen profesionalizazioa indartuz.

Sexu-jazarpena da pertsona baten duintasuna kaltetzeko edota larderiazko, apalesgarri edo erasokor izan daitekeen ingurune bat sortzeko asmoa edo ondorioa duen sexu-jokabide oro, hitzezkoa nahiz fisikoa. Jazarpenak ez du beti forma esplizitua izaten: batzuetan iruzkinak, intsinuazioak, txantxak, mezuak, begiradak edo keinuak izaten dira, pertsona deseroso edo umiliatuta sentiarazten dutenak, nahiz eta erasotzaileak halakotzat hartu ez. Ez dira «gaizki-ulertuak», baizik eta urraketa larriak, honelako jokabideak, besteak beste: sexu-mesedeak baldintza gisa jartzea tratu profesional bat edo lan-aukera bat lortzeko; nahi ez diren ukituak egitea; sexu-edukia duten mezuak bidaltzea; edo jarrera kaltegarri iraunkorrak erakustea.

Jazarpena definitzen duena ez da jazarlearen asmoa, baizik eta jazarpena jasaten duenari eragindako efektua.

Sexuan oinarritutako jazarpena, aldiz, ez dago nahitaez sexu-izaerako jokabideekin lotuta. Pertsona bat bere generoagatik modu negatiboan tratatzen denean gertatzen da. Horren adibide dira, besteak beste: generoagatiko deskalifikazioak egitea; emakume baten gaitasunak gutxiestea; hierarkian gorago dagoen emakume baten aginduak ez betetzea; bilera edo erabaki garrantzitsuetatik kanpo uztea; tratu paternalista ematea; edo beren sexuarentzat tradizionalak ez diren zereginak betetzen dituzten pertsonak barregarri uztea. Era berean, halakotzat hartzen da haurdunaldiarekin, amatasunarekin,

aitatasunarekin edo familia-zaintzekin lotutako edozein tratatu kaltegarri.

Jazarpen-forma biek urratzen dituzte legeak aitortutako oinarritzko eskubideak, baina, batez ere, kaltetu egiten dute lantaldeen arteko konfiantza- eta errespetu-giroa. Inor ezin da lanerako egoki moldatu, baldin eta deseroso, segurtasunik gabe edo gutxietsita sentitzen bada. Horregatik, prebentzioa ez da soilik legeak agindutako betebeharrak, baizik eta erantzukizun kolektiboa ere bai. Denon zeregina da lan-ingurune osasungarriak eraikitzea. Protokoloa ezagutzea beharrezkoa da, baina, horrez gain, egunerokoan errespetuaren kultura lantzea: «txantxa» edo iruzkin sexistak saihestea, kezka adierazten duenari entzutea eta sinestea, jarrera desagokiaren aurrean esku hartzea, beste alde batera ez begiratzea...

Hezkuntza Sailaren protokoloak mekanismo konfidentzial eta seguruak ezartzen ditu balizko jazarpen-kasuen berri emateko. Ukitutako pertsonari laguntza eskaintzen zaio, egitateak inpartzialtasunez ikertzen dira, eta, beharrezkoa denean, prebentzio- eta diziplina-neurriak hartzen dira. Hala ere, protokoloak bakarrik ez dira nahikoa. Eraginkorrak izan daitezen, ezinbestekoa da antolakunde osoak haiek onartu, ezagutu eta behar bezala erabiltzea.

Jarrera matxista edo sexista guztiak esplizituki arbuiatu behar dira, elkarrekin, eta egunero. Keinu, hitz eta erreakzio guztiek dute garrantzia. Hezkuntza Saila osatzen dugun guztiok bat egin dugu konpromiso horrekin, gure erakundea koherentea izan dadin gizarteak sustatzen dituen balioekin: berdintasuna, errespetua eta bizikidetzatza.

Izan ere, protokoloen azken helburua ez da soilik jokabide onartezinak zigortzea, baizik eta ziurtasuna ematea, inor ez dadin lanera beldurrez etorri, pertsona guztiak seguru eta errespetatuak senti daitezen, eta EAEko Administrazioa benetako berdintasunaren adibide izan dadin. Denon esku dago hori lortzea, eta erronka horrek arreta, enpatia eta irmotasuna eskatzen ditu. Bide horretan, abiapuntu bikaina da gure inguruneari begiratzea eta egunez egun inolako jazarpenik ez onartzeko konpromisoa hartzea.



Informazio gehiagorako:

AGINDUA, 2021eko uztailaren 9koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita zer prozeduraren arabera jardungo den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta haren organismo autonomoen eremuan sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuak gertatzen direnean.

BERRIAK



Azaroaren 25eko kanpainak gogorarazten digu emakumeen aurkako indarkeria ez dela emakumeen arazoa soilik, gizarte osoarena baizik

Euskal Autonomia Erkidegoko 4.500 emakumeri egindako "Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko inkesta"-ko datuen arabera, Euskadin bizi diren 16 eta 85 urte bitarteko emakumeen % 48,2k noizbait pairatu du indarkeria-motaren bat bikotearen barruan edo kanpoan. 2 emakumetik batek. Salaketak kasuen % 15era iristen ez diren arren, emakumeen % 80k dio indarkeria horren berri ematen diela lagunei, senideei, ingurune hurbilari. Horregatik da hain garrantzitsua gizarte aktibo eta kontzientziatu bat izatea.

INFORMAZIO GEHIAGO

ANE URDANGARIN IRIARTE

Anek eta berarekin dagoen lantaldeak Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen Prebentzio Zerbitzuan langileen osasuna, segurtasuna eta ongizatea bermatzeko lan egiten dute. Haien lanaren funtsezko zati bat arrisku psikosozialen prebentzioa da, besteak beste, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena.

Protokoloa sortu zenetik, nola diseinatu edo egokitu da? Zer aldaketa edo aurrerapauso nabarmenduko zenituzke?

Indarrean dagoen protokoloa (2021eko uztailaren 9ko Agindua) aurrerapauso handia izan zen: Administrazio osoan prozedura argi eta homogeneoa ezarri zuen. Ordutik, haren aplikazioa hiru ardatz nagusiren bidez hobetu dugu: segurtasun juridiko handiagoa, prebentzio-ikuspegi integratua (laneko arriskuen prebentzioa, berdintasuna, prestakuntza) eta laguntza-sare sendoa (Prebentzio Zerbitzua, aholkularitza konfidentziala eta berdintasun-baliabideen arteko koordinazioa). Horri esker, gaur egun protokoloa tresna praktikoa eta erabilerraza da.

Zein dira protokoloaren inguruan gehien planteatzen diren zalantzak edo kezak?

Batez ere bi kezka sortzen dira: konfidentzialtasuna (informazioa nola babesten den) eta prozesuak izango duen eragin emozionala. Asko bildur dira egoera handitu edo gatazka sortuko ote den, eta horregatik garrantzitsua da prozedura argi azaltzea.

Zein urrats ematen dira salaketa edo egoera baten berri jasotzen denean? Nola bermatzen dira inpartzialtasuna eta konfidentzialtasuna?

Lehenik, pertsonaren ongizatea eta segurtasuna baloratzen dira eta, beharrezkoa bada, babes-neurriak ezartzen dira. Ondoren, Aginduak jasotzen duen prozedura aktibatzen da: harrera, atariko balorazioa, ikerketa eta neurriak. Inpartzialtasuna talde espezializatuen eta irizpide tekniko homogeneoen bidez bermatzen da.

Konfidentzialtasuna zorrotz babesten da, informaziorako sarbidea mugatuz eta datuak erreserbarekin tratatuz. Aldi berean, laguntza emozionalerako baliabideak eskaintzen dira.

Langile askok lotsa, ziurgabetasuna edo beldurra senti dezakete gai honekin. Zer aholku emango zenieke?

Normala da horrela sentitzea, eta ez daude bakarrik. Izan ere, Prebentzio Zerbitzua, Aholkularitza Konfidentziala eta Berdintasun Batzordea laguntzeko daude. Deserosotasuna edo jokabide desagokia bizi edo ikusten bada, onena konfiantzazko norbaitekin hitz egitea izango litzateke. Protokoloa ez da zigortzeko soilik; duintasuna eta segurtasuna babesteko tresna ere bada. Gainera, laguntza emozionala eta profesionala bilatzea gomendatzen da.

Ez badugu jazarpen-egoerarik bizi, zer erantzukizun dugu gainerako langileok?

Prebentzioa guztion ardura da. Jarrera sexistak eta errespetu faltak toleratu gabe, egoera desagokiak antzemanaz gero modu seguruan esku hartzea garrantzitsua da. Halaber, lan-ingurune segurua eraikitzeko protokoloa ezagutzea, informazioa partekatzea eta sentsibilizazioa bermatzea lagungarria da.

Azkenik, zer gomendatuko zenieke zalantzak edo nahasmena dituzten langileei?

Gure mezua argia da: Prebentzio Zerbitzua beti dago prest. Ez da beharrezkoa jazarpen egoera den ziurtasuna izatea; edozein zalantza edo deserosotasun kontsultatu daiteke. Elkarriketa sinple batek askotan orientatu eta egoera okertzea saihestu dezake.

INTERESGARRIAK

01

Irakurtzeko

Emakumeen aurkako indarkeriari eta pertsonen arteko beste indarkeria mota batzuei buruzko inkesta 2024

Azterlan batek berresten du emakumeen lidergoa sustatzea estrategikoa dela erakunde sendoagoak eta prestatuagoak eraikitzeko

02

Ikusteko

NEVENKA: Nevenka Fernández Ponferradako zinegotziak Ismael Álvarez Alderdi, Ponferradako alkatea, sexu-jazarpenagatik salatu zuen eta politikariaren kondena lortu zuen,



(informazio gehiagorako sakatu textuan)

DENBORA PASA

SOPA-LETRA

Sopa de letras Encuentra las actitudes que sobran

F	H	O	U	T	R	E	K	R	F	R	L	A	T	R
F	C	O	S	I	F	I	C	A	C	I	O	N	I	I
G	R	A	N	J	K	T	E	P	H	G	J	N	A	G
A	D	R	I	H	L	Y	E	A	M	E	N	A	Z	A
Q	H	U	A	G	P	U	A	T	I	A	T	F	Q	H
J	J	N	E	D	O	I	D	E	J	E	I	A	G	K
L	L	J	R	S	I	O	F	R	S	A	A	R	H	N
N	N	L	T	A	U	P	G	N	A	G	E	A	K	B
P	S	A	N	X	R	A	L	A	L	A	N	O	O	K
Y	I	S	H	C	D	S	J	L	K	R	I	L	O	I
I	L	E	J	B	S	D	H	I	J	T	O	K	K	B
B	E	S	L	N	F	F	G	S	I	H	A	I	A	B
Q	N	C	P	M	E	G	F	M	O	N	E	A	C	I
S	C	R	O	M	D	H	A	O	I	J	G	V	O	A
G	I	N	O	A	E	J	S	L	A	I	H	R	S	R
H	O	E	N	C	U	B	R	I	R	I	S	W	O	R

SOLUCIÓN: Horizontal (encubrir, cosificación, amenaza)
Vertical (paternalismo, acoso, silencio)